

Herrerako lehoiaren itzulera

Bederatzi denboralditan Athletic-en aritu eta gero, Bittor Alkiza Realera itzuli da. Herrerako erdilariak 1991-92 denboraldian egin zuen debuta Lehen Mailan Realarekin, Toshacken aginduetara eta aita Iñaki presidente zela. Sasoi hartan, Meho Kodro zen Realaren izar nagusia, baina ziur asko, bosniarrak berak oraindik ere gogoan ditu Alkizak emandako hamaika urrezko pase. Hala eta guztiz ere, 1994ko udaran, Toshackek Alkiza saltzeko agindua eman zion Luis Uranga garaiko presidenteari. Batetik, galestarrak De Pedro –Sansetik igo berria– erdialdeko ezker hegalean jarri nahi zuen, Alkizak jokatu ohi zuen lekuan, hain zuzen. Bestetik, dirua behar zuen, Luis Garcia mexikarra fitxatzeko. Nonbait, Alkizarentzat ez zegoen tokirik Realen.

Udara hartan Depor eta Bartzelona Bi-

ttor fitxatzen ahalegindu ziren arren, azkenean, Athletic-era joan zen. Eta talde zuri-gorrian izandako entrenatzaile guzti-guztientzat, galestarrarentzat ez bezala, jokalaria garrantzitsua izan da Bittor. Are gehiago, Luis Fernandezek Paris Saint-Germain-era eramateko saiakera egin zuen duela pare bat urte, eta Heinckesek, aurtengo denboraldia amaitu baino egun batzuk lehenago, laudorioak besterik ez zituen esan herreratarrari buruz.

Orain, 32 urterekin, Bittor Realera bueltatu da. Akordioa urtebeterako sinatu du, eta beste urtebetez luzateko aukera aurreikusi da. Batez ere, iazko udaran ia-ia futbola uztera behartu zuen bizkarreko mina berriro ez izatea opa diogu, futboleant oraindik badu-eta zer eskaini. Ongi etorri etxera, Bittor!



Ekainaren 21etik aurrera Zure kioskoan



Euskaldunok behar dugun **berria**

«Kanpoko taldeei futbola baino zerbait gehiago eskaini behar zaie»

Uztailaren 6tik 12ra bitartean, gazteentzako XII. Donosti Cup nazioarteko futbol txapelketa jokatu da gurean. Urtero bezala, hamaika herrialdetako neska-mutil gazte asko etorriko zaizkigu bisitan. Txapelketaren antolatzaile Iñigo Olaizolarekin mintzatu gara.

Raul Perez

Zein txapelketa hartu zenuten erantzutzat Donosti Cup sortu zenutenean?

Donosti Cup sortu baino lehen, beste herrialde batzuetan gazteentzat egiten ziren txapelketetara hemengo taldeak lagundu ohi nituen. Batez ere Holandako Haarlem Cup eta Suediako Gothia Cup txapelketek zuten arrakasta ikusirik, Donostian antzeko zerbait antolatzea bururatu zitzaigun.

Ereduak eredu, ez dago Donosti Cup beste txapelketa horiekin alderatzerik. Suediako txapelketan 1.000 talde inguruk parte hartzen dute, eta gurean aurten esaterako, 145 talde ariko dira. Dena dela, txapelketaren maila ezin da soilik talde kopuruaren arabera neurtu; Suedian, adibidez, hainbeste taldek parte hartzen dutenez, antolatzaileek ezin diete nahi adina arreta eskaini.

Zer bilakaera izan du txapelketak?

Pixkanaka-pixkanaka txapelketak aurrera egin du. Hasiera batean, talde gehienak ingurukoak ziren, baina urteen poderioz munduko bazter guztietako taldeek txapelketaren berri izan eta gurera etorri dira. Aurten berrikuntza gisa, nabarmendu behar da Hegoafrikako talde batek eta Nigeriako bik eman dutela izena. Gainera, etxekoek ere ez digute hutsik egin; aurten Gipuzkoako 70 bat taldek parte hartuko dute.

Noiz hasi ohi zarete txapelketa prestatzen?

Txapelketa uztailan jokatu ohi da, eta irailean jada hurrengo urtekoa prestatzen hasten gara. 20.000 bat liburuxka bidaltzen dizkiegu mundu osoko futbol taldeei, gure berri izan dezaten. E-postari esker, bestalde, ez dut bidaia askorik egin beharrik txapelketa sustatzeko. Hala eta guztiz ere, izen emateak eta e-postaz egin daitezkeen arren, herrialde batzuetako taldeen ordezkariak,

«Lopez Rekartek eta Pablo Orbaizek jokatu izan dute Donosti Cup-en»

riak, AEBetakoak kasu, txapelketa jokatu aurretik Donostiara etorri ohi dira, hiria ezagutzera.

Futbola alde batera utzita, Donostiako bazter ugari ezagutzera eraman ohi dituzue neska-mutil gazteak, festak egin ohi dituzue...

Parte hartzaileei turismoa egiteko eta elkarren artean ezagutzeko aukera ematea ezinbestekoa da. Futboleko jokatzeko, talde askok ez lukete 3.000 kilometroko bidaia egingo. Kanpoko taldeei futbola baino zerbait gehiago eskaini behar zaie gurera erakartzeko. Eguraldi ona eta prezio merkeak dira Espainian egiten diren antzeko txapelketa batzuen amuak. Guk txapelketari kultur kutsua eman nahi izan diogu hasieratik.

Besteak beste, Xabi Alonsok eta Mikel Artetak parte hartu dute Donosti Cup-en. Egun goi-mailan dagoen beste jokalariren baten izena aipaiguzu.

Lopez Rekarte, Athleticean dabilen Pablo Orbaiz, zuri-gorrien emakumezkoen taldearekin Liga txapelkun izan den Eli Capa donostiarra... Bestalde, urte batzuetan punta-puntako taldeak izan ditugu, F.C. Bartzelona, kasu. Dena den, guretzat ez da lehentasuna sekulako mailako taldeak ekartzea.

Munduko bazter guztietako taldeak etortzen dira gurera. Zeintzuk dira atseginenak?

Hegoamerikarrak. Donosti Cupen lanean aritu diren lagun batzuk Hego Amerikan egon dira, gurean jokatu duten taldeen ordezkariak gonbidatuta, eta hango jendearen eskuzabaltasuna azpimarratu digute Donostiara bueltatzerakoan.

